

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

2025eko lan-eskaintza publikoa eta 2022ko lan-eskaintza publikoaren iraungipena

Alkatetza ebazpena

2022ko azaroaren 28ko ALHAOn (136. zk.) argitaratu zen 2022ko enplegu publikoaren eskaintza, bulego orokorreko administrarien lanpostuak eta langileen lanpostuak barne hartzen zituen, eta argitaratu zenetik hiru urte igaro dira, eta ez da argitaratu azkena postu horren deialdirik.

Alkatetza honek espedientea hasteko agindu zuen, langile lanpostuari dagokionez 2022ko EPE iraungitzat jotzeko eta ekitaldi honetarako EPE onartzeko.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 91.1 artikuluan eta Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 128.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, toki-erakundeek, aurrekontua onartu eta hilabeteko epean, Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu eta argitaratu behar dute, funtzio publikoari buruzko Estatuko oinarritzko legeriara eta Estatuko oinarritzko araudia garatzeko erregelamendu bidez ezartzen diren irizpideetara egokituta, gainerako administrazio publikoen enplegu-eskaintzekin behar bezala koordinatzeko.

Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bateginak (EPOETB), urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, 70. artikuluan ezartzen duenez, langile berriak sartuz bete behar diren giza baliabideen beharrianak, aurrekontu-esleipena dutenak, enplegu publikoaren eskaintzaren bidez beteko dira, edo langile-beharrak betetzeko antzeko beste kudeaketa-tresnaren baten bidez. Horrek berekin ekarriko du konprometitutako plazetarako hautaketa-prozesuen deialdia egin beharra, ehuneko 10 gehiago gehienez, eta prozesu horietarako deialdia egiteko gehieneko epea ezarriko da. Halaber, EPE hori hiru urteko epe luzaezinean garatu beharko da.

Auzitegi Gorenak uztailaren 9ko 930/2025 Epaian EPEa betearazteko epearen zenbaketari buruz ezarritakoa kontuan hartu da.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. artikulua zehazten duenez, aurrekontu-esleipena duten lanpostuak betetzeko langile-beharrak ezin badira bete administrazio bakoitzean dauden langileekin, eta, ondorioz, langile berriekin bete behar badira, enplegu publikoaren eskaintza edo antzeko beste edozein kudeaketa-tresna erabili beharko dute euskal administrazio publikoek eta haien mendeko erakundeek, langileen ordezkariekin negoziatu ondoren.

Kontuan hartu da enplegu publikoaren eskaintza edo antzeko beste edozein tresna onartzeak berekin dakarrela konprometitutako lanpostuen zuzkiduren deialdia egiteko betebeharra, eta, hala badagokio, ehuneko hamar gehigarri ere bai, eta dagozkion hautaketa-prozeduretarako deialdia egiteko gehieneko epea ezarri behar dela. Eskaintako plazen gehikuntza gehigarri hori EEPLren 78.8 artikuluan adierazitako baldintzetan egin beharko da.

Proposamenak 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legeak – 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legea – ezarritako mugak betetzen ditu, lan-eskaintza publikoei dagokienez.

Udal honek 2025eko urtarrilaren 31an egindako bilkuran onartu zituen udal-aurrekontu orokorra, aurrekontu-plantilla eta lanpostuen zerrenda, horien artean langile postua.

Proposamena ordezkaritza handieneko erakunde sindikalekin negoziatu da, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 36.3 eta 37.1.c) eta 37.1.1) artikuluetan eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 191.1.3, 191.1.13 eta 195. artikuluetan xedatutakoa aplikatuz.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.g) artikulua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, alkatetza honi esleitzen dio lan-eskaintza publikoa onartzea.

Azaldutakoa ikusita,

XEDATZEN DUT

LEHENENGOA.- Langile lanpostuari dagokionez 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintza iraungi dela deklaratzeko.

BIGARRENA.- 2025ko ekitaldiko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzea, lanpostu hauek dituenak:

IZENA	ESKALA-AZPIESKALA	TALDEA	PLAZAK	AUKERATZE ERA
Langilea	AB-ZB	E	1	Oposizio-lehiaketa

HIRUGARRENA.- Lan-eskaintza publikoa udal honen egoitza elektronikoan eta ALHAOn argitaratzea, guztiek jakin dezaten eta interesdunek egoki iritzitako errekurtsoak aurkez ditzaten.

Santikurutze Kanpezu, 2025eko abenduaren 17a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO